

EUSKALDUNAK eta KOLOREAK

Kolorezalentzat, hiru kolore dira oinarritzkoak: gorria, urdina eta horia. Gainerateko koloreak dira hiru horietarik sortzen, salbu beltza... Beltza da koloregabetasuna.

Horiek hola, nere iritziz, euskal etorkiari sakonkienik lotuak diren koloreak dira hiru: beltza, xuria eta gorria.

Koloreen izenak

Euskalki guzietan, hitz **beraz** eta **bakarraz** izendatzen ditugu hiru kolore horiek: beltza, xuria, gorria.

Ez da berdin bertze koloreentzat. Edo euskalki arau, hitz desberdinak dauzkagu haien izendatzeko... Edo, kolore horien izenak erdaratik ditugu... Edo, izen eskasiaz, kolore horiek noren edo zeren antzeko diren azaltzen dugu.

Adibidez: Urdina, Azula, Blua,
Horia, Amarilloa,
Bioleta, Morea,
Ferdea, Orlegia,
Ogi bihi kolore,
Hauts kolore,
Gaztain kolore.

Koloreen nola izendatzeak, ez ote dauku jada pixka bat erakusten, zoin ditazken, heien artean, gure-gurezkoenak!

Horia gorri dela

Euskaldunek "gorri" izendatzen ditugu, berenaz "hori" diren ikusgailu asko:

Adibidez: Arroltze goringoa,
Gure mendietako behi gorriak,
Napar ardi mutur gorriak,
Ipar-gizon bilo gorriak.

Gure etxe zaharren izendegian

Hiru kolore horietaz bertzerik ez da kasik ezagutzen.

Adibidez: Etxexuria,
Etxegorria,
Beltzenea.

Euskaldunen deiturategian

Gure deituretan ere, hiru kolore horiek, eta horiek bakarrik, dira kasik beti, barnean sartuak.

Ez da harritzeko, gure deiturak direnaz geroz, maizenik leku eta etxeen izenatarik sortuak.

Euskaldunen deiturategian

Gure deituretan ere, hiru kolore horiak, eta horiek bakarrik, dira klasik beti, barnean sartuak.

Ez da harritzeko, gure deiturak direnaz geroz, maizenik leku eta etxeen izenatarik sortuak.

Adibidez: Bidegorri,

Adibidez: Bidegorri,
Beltzuntze,
Bordaxuri.

Abereen izenak

Zakur, gatu, ardi, behi izenetan, arras guti ditake, hiru kolore horietaz bertzerik.

Adibidez: Zuriko,
Beltza,
Musu gorri,

Gizonaren gora-beherak

Gure errankizun zaharretan, gizonak dituen gora-beherak, bai gorpuzaren, bai gogo-bihotzaren aldetik, dira usu beltz, xuri edo gorri... Arras gutitan, bertze koloretakoak.

Adibidez: Kopeta beltz,
Barne beltz,
Larru gorrian,
Gose gorria,
Aho xuri,
Begiak zurituak,
Azken beltzean,
Mihi beltza,
Xuri-gorriak,
Xuri-beltzak,
Zurikeria
Gorri-beltzak.

Oharmen— “Solas ferdeak”, “Ferdekeriak” ez dira etorkiz euskaratik, bainan erdaratik. Euskaraz, erraten dugu “Solas gordinak”, “Gordinkeriak”.

Aizea ere koloratua

Aizeen izendegian, ezagutzen ditugu:

Aize beltza, aize xuria, aize gorria.

Hain xuxen, aizeak ez duke bertze kolorerik.

Soinuak ere koloratuak

Asko soinuri ematen diotegu hiru kolore horietarik bat. Ez bertzerik.

Adibidez: Oihu beltzak,
Kalapita gorrian,
Ele zuriak.

Erlijione eta politikan ere

Adibidez: Sabel xuri, Sabel gorri,
Xapel gorri, Beltzak,
Xuriak eta Gorriak,
Satan beltza, Galtxagorri,
Aingeru xuriak,
Sorgin begi gorriak.

Harzilotako pinturak

Gure harzilotako pinturak ez ote dira gutiz gehienak: beltz, xuri, gorri!.

Nere ikusmoldea hitz laburrez

Jasta hunen lerrokada luzatzea errex litake, aipatuz zerua, lurra, ura eta heien azaleko koloreak. Bainan, beti oharren beretarat joko dugu: Euskaldunen begi eta hizkuntzan, gehienik finkatuak diren koloreak direla bortz: beltza, xuria, gorria, horia eta urdina... Horia dela guti gutartean. Urdina eta ferdea gehixago... Gure hiru kolore nausiak direla: beltza, xuria eta gorria.

Holakatze hunen iturriak

Norat joa, nundik jotik dator? Nere iritzi, gizona da ispillu bizi bat. Ispillu horrek, bazterretako koloreak, diren bezala beretzen ditu, bainan beretzean aldatzen, bere bizi-moldeaz paletatuz.

Euskal-lurreko koloreak dira batzu aldakorrek, bertzeak iraunkorrek. Iraunkorrek dira, zeruko argien xuria, gauaren beltza, lurraren gorria. Aldakorrek dira landareen ferde eta horia, zeru-itsasoaren urdina.

Euskalduna baitan, lotkia sakonagoa duke iraunkorrek, aldakorrek baino. Asma ere dezakegu, gure lurretako bero eta izotz aroetan, kolore beltz, xuri-gorriek, gaur baino zabaldua gehiago zuketela.

Bertzalde, Euskaldunak bere bizi-tza zear, ez ote ditu gehiago nabaitu odolezko gorritasuna, etsimenduaren beltza, xuritasunaren eskasia eze-netz eta urdinaren arintasuna, horiaren hiltasuna eta ferdearen esperantza.

Xuxen edo makur izan dadien nere azken iritzi hau, ezin ukatua dena da Euskaldunek, gure-gurezko begiz, ikusten ditugula koloreak. Beraz,